



Baiona - 2006ko maiatzaren 6an

«Zer tenore duzu ?»

Eneko Bidegain



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



«Zer tenore duzu ?»

Eneko Bidegain

2

■ Euria jauts ahala ari du, eta ni hemen, hezurretaraino bustirik. Eta nire laguna ez dator. Berriz ere berantean da. Beti bezala. Haren beha nago, aterpe ttipiena ezin atzemanetz. Sutan jartzen naute tenorea errespetatzen ez dutenek. Eta gaurko euriak ez du su hori itzali, alderantziz.

Ez dute errespeturik. Baietz dutxan sartu hona heldu behar zuen tenorean ? Zer jokutzen duzu duela bost minutu atera dela etxetik ? Usaian bezala, oren erdi bateko berantarekin agertuko zait.

«Zer tenore duzu ?»

Eneko Bidegain

3

Eta zer naiz, ni ? Tontoa ala ? Ni, zortziko itzea bezala, tenoreko tanko hemen nintzen. Beti errespetatu ohi ditut hitzorduetako tenoreak. Batzuetan bi, hiru, lau, bost minuturen gibelapena biltzen dut. Hamar minutu ? Ahal bada ez. Baina oren erdi bat ? Batzuek gaitza dute tenoreekin. Txarrena da, banekiela. Zergatik deabru agertzen naiz hitzorduko tenorean, hain ongi baldin badakit oren erdi batez gutienez beha egon behar izanen dudala ? Ez dut nehoiz ikasiko...

«Zer tenore duzu ?»

Eneko Bidegain

4

Asea naiz, gero, asea ! Bost minutuko epea uzten diot. Eta erdietan ez bada hemen, banoa, lekuak husten ditut. Gaitzituko da, badakit. Baina ez zait inporta. Badut kexu izateko arrazoirik aski. Ea ikasten duen, behingoz. Ez da aldatuko, badakit nik. Ez du onartuko haserre jar nadin. Harentzat – haientzat – ni bezalakoak gara pazientzia guti dugunak. Edo barkamen herabe bat eskatuko du, eta ondoko aldian berdin egingen du.

Lau minutu iragan dira. Epea bukatzen ari zaio.

Zozoa bezala bakarrik gelditzen bada, ez da ene falta izanen.

«Zer tenore duzu ?»

Eneko Bidegain

5

Hara ! Bost minutuak pasatu dira. Banoa.

To ! To ! Hara non heldu den. Banekien ! Banekien hemendik joatea erabaki baino segundu batzuk lehenago agertuko zitzaidala. Beti berdin !

«Egunon» irrifartsu bat eta berehala hasi zait etxeko eta laneko istorioak kontatzen, burrustan, euria bezala, nire agur murrizari eta muturrari kasurik egin gabe. Ez erran ez dela ohartu hotz nagoela.

Arras ongi badaki zergatik naizen haserre, eta horregatik da ez isiltzen, bere hutsa ahantzarazteko. Trago bat edanez giroa goxatuko duela uste du. Eta hala gertatuko da. Azken aldia... ■

- * Testuak
- * Sariak
- * Argazkiak...

Euskal kulturaren web ataria

AKE .ORG



.ORG

[Albisteak](#) | [Agenda](#) | [Loturak](#) | [Argazkiak](#) | [Extraneta](#)

Euskal Kulturaren ataria

[Français](#) • [Español](#) • [English](#)

[Euskal Herria](#) | [Euskara](#) | [Kultura](#) | [Ondarea](#) | [Kultura eragileak](#) | [Euskal Kultur Erakundea](#)

Euskararen historia

Hizkuntzalaritza

Soziolinguistika

Erakaskuntza

Euskaraz bizi !

Euskarazko komunikabideak

Seinaletza elebidun publikoa

Bizi soziala

Hezkuntza eta aisialdiak

Euskarazko animazioak CETL hitzarmenaren barnean

Errobi mintzo : ingurumen heziketa euskaraz

Euskal kultura mediateketan

"Bat-Biga-Hiru" programa

"Hitzaditza", diktaketa kulturala

Itzulpenen datu-basea

Hemen zauder: [Euskal Kultur Erakundea](#) > [Euskara, gure hizkuntza](#) > [Euskaraz bizi !](#) > [Hezkuntza eta aisialdiak](#) > ["Hitzaditza"](#), diktaketa kulturala > Hitzaditza 2006 : idazleak eta testuak

> Hitzaditza 2006 : idazleak eta testuak

Idazleak	Testuak
Eneko Bidegain  31 urte ditu kazetari lapurtarrak. Uztartitzen sortu zen eta Berria egunkarian egiten du lan, egun. Bertso programa bat egiten du Gure Irratian. 2005ean bere bigarren eleberria kaleratu du. Urte hartan Bertsulari Txapelketa Nagusian epaile izan da ere bai. Harremanetan iartzeko... (argazkia : www.sautrela.com) Nobelak <i>Anbroxio</i>, 2002 (Elkar) <i>Mahatsaren begia</i>, 2005 (Elkar)	 Izenburua : Maila : Errexa
Aurelia Arkotxa  Euskara eta euskal literatura irakaslea Bordale 3ko Michel de Montaigne unibertsitatean. Ikertzailea IKER-en. Lapurdum agerkariaren zuzendaria. Euskaltzain urgazlea. Kronika idazlea Berria egunkarian. Harremanetan iartzeko... (argazkia : www.sautrela.com) Nobela <i>Septentrio</i>, 2001 (Alberdania) Poesia <i>Atari ahantziak</i>, 1993 (Pamiela)	 Izenburua : Maila : Errexa

Hitzaditza 2006

Noiz :

- 2006ko maiatzaren 6an, larunbatez, 9:30etan

Non :

- Baionako IUT-en (Jean Darrigrand etorbidea, 3)
- [Ikus kokapen planoa \(Irudia GIF - 80 Ko\)](#)
- [Kokapena \(Taqzaniarekin\)](#)

Izen-emateko epea eta aukerak :

- 2006ko maiatzaren 3a
- EKE : 00 33 (0)5 59 93 25 25
- AEK : 00 33 (0)5 59 25 76 09
- [Formulario elektronikoa](#)

Antolatzaileak :

- Euskal kultur erakundea
- Iparaldeko AEK

Xehetasunak

 [Prentsa-txostena](#)



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

